

uno de los métodos más efectivos de represión de la libertad de prensa».

Bide hori edozein kazetagintzarako kaltegarri bada, are okerrago da eskual prentsari begira. Ez Leoiako ez inongo Unibertsitatek prestatzen du inor *euskal* kazetaritzarako. Eta, bestetik, eskual prentsan bokazioa eta profesionaltasuna duten gehienek ez dute titulurik. ■ *Joan Larrinaga.*

## Erich Fromm

Hil berria dugu Erich Fromm, *El miedo a la libertad, El arte de amar* eta beste hainbat liburu interesgarriren autorea. Egia esan, ez dut uste beste munduko arrastoa utziko duenik giza pentsamenduaren historian. Hala ere, aski ezaguna denez, batez ere gaurko gazteen artean —azken urteotan adolezenteen formazioari begira argitaratu diren liburuen artean, nekez aurkituko da bat Fromm-en texturen bat edo beste ez dakarrena—, ongi iruditu zait, pentsalari honen lanaren gainean iruzkin labur bat egitea.

E. Fromm psikoanalista zen; psikoanalistatzat zeukan behintzat bere burua. Ez zen, ordea, psikoanalista «ortodoxoa»: Freudiar berri edo neo-freudiarren artean jartzen dute, H. Sullivan eta K. Horneyekin batera. Freud-en kontzepturik oinarritzkoenak erabiltzen bazituen ere (esate baterako, *nia, Edipoa, super-nia, inkontzientea*, etab.) edukin eta esanahi desberdina hartzen zuten Fromm-en idazkietan. Psikoanalisiaren barruan funtsezko garrantzia duten zenbait puntutan ez zen Freud-en pentsakerakoa. Adibidez:

— Freud-en nortasun-teoria, gorputzaren, sexualitatearen, instintuen gorabeheren inguruan eratuta dagoen bitartean, gizartearen eragina ia ahazturik gelditzen delarik, faktore sozio-ekonomikoei ematen die lehentasuna Fromm-ek nortasunaren eraketan.

— Gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanari buruz ere, iritzi ezberdinekoak dira Freud eta Fromm. Freud-engan aski estatikoa da erlazio hori: alde batetik gizakia, bere instintu eta guzti; bestetik gizartea, instintu horiek ase nahiz erreprimitu egiten dituen. Fromm-entzat, aldiz, errepresioa ez-errepresioa, kreatzailea ere bada gizartea gizakiaren garapenari begira: azken batez gizarteak egiten du, neurri handi batetan, gizona.

— Erligioaren zentzuari dagokionez, Freud-entzat erlijioa neurosia da. Fromm-ek buelta ematen dio arazoari, eta neurosia erlijio-era berezia dela esaten digu. Bestetik, ez du onartzen erlijioa beti neurosia denik. Bi erlijio-mota berezten ditu: erlijio autoritarioa eta erlijio humanista. Lehenengoa neurotikoa izango litzateke, baina ez bigarrena.

Freud-en eta Fromm-en arteko iritzi-desberdintasuna ez da aipatu

puntuetara mugatzen, baina ez dago hemen gehiago luzatzerik. Dena den, arazo bat jarri nahi nuke orain mahai gainean: arrazoia nork dauka: Freud-ek ala Fromm-ek? Ba, behar bada biak. Baina, horrela esanda, erantzunak ez digu gehiegi balio. Jokoan gizona eta honen osasun psikikoa eta zoriona daudenean, ez dute mesede handirik egiten horrelako irtenbideek. Giza naturaz gogoeta egitea ongi dago, ez diogu inori ukatuko horretaz pentsatzen duena agertzeko eskubidea. Baina honek edo hark esaten duena, gure pentsakerarekin bat datorrelako edo, arinkiegi zientifikotzat jotzea, hori beste kontua da. Fromm-ek, eta Freud-ek, eta beste psikoanalistek, gauza interesgarriak eta ikaragarri sujerenteak esan dituzte eta esaten dituzte. Baina kontuz, ez dezagun pentsa azken hitza horiena denik. Zientzia eta pentsalari baten gogoetak ezin ditugu batera jarri.

Freud-engandik aldentzen duenaz aparte, *El miedo a la libertad* liburuan defenditzen duen tesia gogoratu beharko genuke hemen. Hitz gutxitan, hau da tesia: askatasunak, erabakiak norberak hartu beharrak, larritasuna dakar, beldurra, eta gizonak askotan, askatasunari uko egitera jotzen du larritasuna gainditzearren. Nazismoaren garaian gertatutakoa dauka gogoan Fromm-ek tesi hau defenditzera-koan. Nazismoa, aspaldiko kontua dela pentsatuko du norbaitek. Baina, ez al dira gizonaren baitako konponente horretaz baliatu, askatasunarekiko beldurraz alegia, azken hauteskunde-kanpainan «ordenua eta lana», «lasaitasuna eta bakea», «egiazko askatasuna» etab. eskaintzen zigutenak?

Bukatzeko, Fromm-en heriotzarekin pentsalari on bat galdu dugula esango nuke, irakurtzea merezi duen pentsalari bat, baina ez zientzigizon bat. Eta ez dut esan nahi zientzigizona pentsalaria baino gehiago denik. ■ *Pello Huizi*.